

**24/2014 FORU ARAUA, UZTAILAREN 9KOA, ENERGIA ELEKTRIKOAREN
EKOIZPENAREN BALIOAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKOA**

(ALHAO, 81. zk., 14-7-18koa)

ZIOEN AZALPENA

Abenduaren 27ko 15/2012 Legeak, iraunkortasun energetikorako neurri fiskalenak, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga sortu zuen, besteak beste, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, zerga sistema harmonizatzeko xedearekin eraginkortasun energetikoaren balioa eta ingurumenaren errespetu eta iraunkortasun balioekin eta sustatzeko aurrekontu oreka ingurumen politiken integrazio estrategiaren markoan.

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak Ekonomia Ituna aldatzea erabaki du, besteak beste, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga adosteko.

Itun hori Arabako Biltzar Nagusiek berretsi dute, otsailaren 26ko 4/2014 Foru Arauaren, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren lehenengo erabakia berrestekoaren, bidez.

Ekonomia Itunaren 23 quater artikulua arabera, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga itundutako tributua da eta Estatuak unean-unean ezartzen dituen arau substantibo eta formalen bidez arautuko da.

Foru arau honen bidez zerga figura berri hori finkatu nahi da Arabako Lurralde Historikoko zerga sistemaren barruan, harmonizatzeko horrela zerga sistema arabarra ingurumenaren eta iraunkortasunaren erabilera eraginkor eta errespetutsuago batekin, Europar Batasunaren zerga, energia eta, noski, ingurumen politika eraentzen duten oinarrizko printzipioen ildotik.

1. artikulua. Izaera.

Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga zuzeneko tributua objektiboa da, eta energia elektrikoaren ekoizteko eta sistema elektriko sartzeko jarduerak, zentraletako barretan neurituak eta foru arau honetako 4. artikuluan adierazitako instalazio guztien bitartez gauzatuak, zergapetzen ditu.

2. artikulua. Araudi aplikagarria.

1. Ekonomia Itunaren 23 quater artikuluan xedatutakoaren ildotik, zerga foru arau honetan eta hura garatzen duten xedapenetan xedatutakoarekin bat etorriz eskatuko da.

2. Foru arau honetan ezarritakoak ez du ezertan eragotziko barne antolamenduaren osagai bihurtu diren nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan xedatutakoa.

3. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

Arabako Foru Aldundiak ordainaraziko du zerga, energia elektrikoaren ekoizpen instalazioak Arabako Lurralde Historikoan kokatuta badaude.

4. artikulua. Zerga gaia.

1. Zerga gaia da azaroaren 27ko 54/1997 Legearen, sektore elektrikoari buruzkoaren, IV. tituluak aipatzen dituen instalazioetako energia elektrikoaren, zentraletako barretan

neurtua, ekoizteko jarduerak eta energia elektrikoa penintsulako, uharteetako eta penintsulaz kanpoko lurraldeetako sistemetara sartzeko jarduerak.

2. Foru arau honi dagokionez, bat etorriko dira zentraletako barretan neurtutako energiaren ekoizpena eta alternadore boretan neurtutako energia, azken horri sortze prozesuen kontsumo osagarrietan eta sarera konektatzeko punturainoko galerak gutxituta.

3. Foru arau honetan ageri diren eta berezko izaera duten kontzeptuei eta terminoei dagokienez, sektore elektrikoaren Estatuko araudian xedatutakoa beteko da, legean bertan definitutakoenen kasuan izan ezik.

5. artikulua. Zergadunak.

4. artikuluan azaldutako jarduerak gauzatzen dituzten pertsonak, fisikoak nahiz juridikoak, eta otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren, Arabako zergei buruzkoaren, 35.3 artikulua aipatzen dituen erakundeak izango dira zergadunak.

6. artikulua. Zerga oinarria.

1. [\(1\)](#) [\(2\)](#) [\(3\)](#) [\(4\)](#) Zerga-aldian instalazio bakoitzean zentraletako barretan neurtutako energia elektrikoa ekoiztegatik edo sistema elektridora sartzegatik zergadunak jaso beharreko zenbateko osoa izango da zergaren oinarria.

Ondorio hauetarako, zenbateko osoa kalkulatzeko, abenduaren 26ko 24/2013 Legean, sektore elektrikoarenean, xedatutakotik deribatutako erregimen ekonomiko guztietan zergaldian izandako ordainsariak hartuko dira aintzat, baita uharteetako lurraldeetan eta penintsulaz kanpoko lurraldeetan energia elektrikoa sortzeko eta sistema elektridora sartzeko jardueren kasurako aurreikusitako berariazko erregimen ekonomikokoak ere.

Lotutako pertsonen edo erakundearen artean eragiketak egiten direnean, sozietateen gaineko zergaren araudian xedatutakoaren arabera, ordainsaria ez da izango merkatuko balioa baino txikiagoa. Merkatuko balioa hartuko da pertsona edo erakunde independenteek lehia askearen printzipioa errespetatzen duten baldintzetan adostutakoa. Ondorio horietarako, merkatuko balioa zehazteko, sozietateen gaineko zergaren araudian jasotako metodoetatik edozein aplikatuko da.

2. Foru arau honetako 4. artikuluan adierazitako jarduerak gauzatzen dituzten instalazio guztietarako kalkulatu da aurreko paragrafoan zehaztutako zerga oinarria.

7. artikulua. Zergaldia eta sortzapena.

1. Zergaldia urte naturalarekin bat etorriko da, non eta zergadunak ekitaldia amaitu aurretik instalazioaren jarduera eteten ez duen. Azken kasu horretan, jarduera uzten den egunean amaituko da zergaldia.

2. Zergaldiaren azken egunean sortuko da zerga.

8. artikulua. Karga tasa.

Ehuneko 7ko karga tasa aplikatuko da zergaren bidez.

9. artikulua. Kuota osoa.

Zerga oinarriari karga tasa aplikatzearen emaitza izango da kuota osoa.

10. artikulua. Likidazioa eta ordainketa.

1. Zergadunek, zerga sortu eta hurrengo azaroan, zergaren autolikidazioa egin eta kuota ordaindu beharko dute, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezartzen dituen arauen eta ereduaren arabera. Horretarako, ekoizpen elektrikoari buruzko behin betiko neurriak hartu beharko dira kontuan.

2. Maiatzaren, irailaren, azaroaren eta hurrengo urteko otsailaren 1aren eta 25aren artean, zerga gaia gauzatzen duten zergadunek urte natural bakoitzeko hiru, sei, bederatzi edo hamabi hileko aldiari dagokion ordainketa zatitua egin beharko dute, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarritako arauen eta modeloen arabera.

3. [\(2\)](#) [\(3\)](#) [\(4\)](#) Zergaldiaren hasieratik aurreko paragrafoan azaldutako hiru, sei, bederatzi edo hamabi hilabeteak amaitu arte gauzatutako energia elektrikoaren ekoizpenaren -zentraletako barretan neurtua- balioaren arabera kalkulatu da ordainketa zatituen zenbatekoa, foru arau honetako 8. artikuluan adierazitako karga tasa aplikatuta, eta aurretik egindako ordainketa zatituen zenbatekoa kenduko zaio.

Hala, ekoizpen baliotzat hartuko da dagokion epealdian instalazio bakoitzean energia elektrikoa (zentraletako barretan neurtua) ekoiztegatik eta sistema elektrikoan sartzeagatik zergadunak jaso beharreko zenbateko osoa.

Dena dela, aurreko urteko instalazio guztietako ekoizpenaren balioa 500.000 eurotik beherakoa denean, zergadunek azaroaren 1etik 25era arteko likidazio epea duen ordainketa zatitua soilik egin beharko dute nahitaez.

4. Zergadunen batek aurreko urtean gauzatutako jarduerak urte naturala baino gutxiago iraun badu, ekoizpenaren balioa urtebetera hedatuko da.

5. Jarduera urtarilaren 1aren ondoren hasi bada, abian dagoen zergaldiari dagokion likidazioaren konturako ordainketa zatikatuak, instalazio guztietako ekoizpenaren balioa (zergaldiaren hasieratik kalkulatu) 500.000 eurotik gorakoa den hiruhilekoari dagokion likidazioaldian egingo dira.

6. Ordainketa zatikatuak egiteko unean zergadunari dagokion zenbatekoa ezezaguna bada, zergadunak behin-behineko zenbateko bat finkatu beharko du sistemaren operadoreak eta, hala badagokio, Energiaren Batzorde Nazionalak ordainketa epea hasi aurretik egindako behin-behineko azken likidazioaren arabera.

11. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak.

Zerga honekin lotutako zehapenak otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, eta Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 18ko 97/2008 Foru Dekretuak, zerga arau hauste eta zehapenen arautegia onartzen duenak, aurreikusitakoarekin bat etorritik sailkatu eta zehatuko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2013ko urtarilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena. Gaitzea.

Arabako Foru Aldundia gaitu egiten da xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

OHARRAK

- (1) 10/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abuztuaren 2koa.
(ALHAO, 90. zk., 22-08-08koa).
- (2) 2/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abuztuaren 2koa.
(ALHAO, 22. zk., 23-02-22koa).
- (3) 1/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 20koa.
(ALHAO, 25. zk., 24-02-28koa).
- (4) 3/2026 Presa fiskaleko dekretu arauemailea, apirilaren 21ekoa.
(ALHAO, 49. zk., 26-4-29koa).